

LABURPENA

**GENERO
BERDINTASUNAREN
ALDEKO III. PLANA
III. SUGARA PLANA
2024-2027**

SETEM HEGO HAIZEA



LABURPENA¹

GENERO BERDINTASUNAREN ALDEKO III. PLANA

III. SUGARA PLANA

2024-2027

1.- SARRERA.

SETEM Hego Haizearen Genero Berdintasunaren Aldeko III. Plana – III. Sugara Plana erakundearen arlo guztietan eta bere jardueretan genero berdintasuna eta feminismoa sustatzeko diseinatutako plan integrala da. SETEMen ezinbestekotzat jotzen dugu gure erakundeak aztertu eta berreraikitzea, bizitzak erdigunean jarriko dituen mundu bidezkoago eta jasangarriagorako eraldaketa soziala eta ekonomikoa lortzeko, borrokatu nahi dugun sistema hetero patriarkal eta koloniala erreproduzitzen ez dutela ziurtatzeko.

Hala, hirugarren plan hori birpentsatu egin dugu aldez aurretik hasitako gogoeta eta eztabaida batzuetan sakontzeko, denbora batez esperimendatzen daramagun dinamika batzuk sendotzeko, eta barne zein kanpo tresna eta praktikak berriz pentsatu eta eguneratzeko, konplizitate harremana dugun erakunde eta kolektiboekin. Horretarako, kontuan hartu ditugu aurreko planetatik eta aldi berean egin ditugun prozesuetatik ateratako ikaskuntzak, hala nola SETEMen 2024-2030 plan estrategikoa egiteko burutu genuen prozesua.

Plan honekin, geure burua erakunde feminista gisa birpentsatzen jarraitu nahi izan dugu, gure eredu politikoarekin, kontsumo kritiko, arduratsu eta eraldatzaile (KKA) feministarekin, koherentziaz harremantzeko, antolatzeko eta lan egiteko.

Hau da, antolaketa-ikaskuntzan aurrera egiten jarraitzea, prestakuntza eta gogoeta kolektiboko prozesu gisa, bai barnekoa, bai gure harreman-inguruneke beste erakunde batzuekin egindakoa, eta horrek antolakuntzako politketan eta praktiketan aldaketak eragin ditzan, zainketetatik eta feminismotik abiatuta.

Hots, erakundearen azterketa sakona egin nahi dugu, haren funtzionamenduaren alderdiak, haren estrategiak, prozedurak, egiturak, sinismenak eta erakunde osatzen dutenen portaerak identifikatuz. Alderdi horiek menderatze eta desberdintasun logikak sor (eta erreproduzitu) ditzakete, modu kontzientean edo inkontzientean. Gure eguneroko praktikaren barruan, kudeaketa emozionaleko dinamiketan, komunikazio kontziente eta ez-bortitzeko dinamiketan eta gatazkak erregulatzeko zein taldea zaintzeko tekniketan sakontzea eta sustraitzea esan nahi du, hori guztia iparrorratz feministatik.

2.- IPARRORRATZA.

Gure aurreko planaren koordinatuek gida bat eman ziguten egin nahi genituen bideak zehazteko. Uste dugu gida horrek indarrean jarraitzen duela gaur egungo SETEMen, eta, beraz, funtsezkotzat jotzen dugu III. Sugara Plan honetan horri eustea. Hauek dira koordinatuak:

- Iparra: zer egiten dugun, gure nortasuna, gure esparru politikoa: 1. eta 2. bideak.
- Ekialdea: nortzuk egiten dugun eta norekin, aliantzak eta partaide garen espazioak: 3. eta 4. bideak.
- Mendebaldea: nola egiten dugun, gure funtzionatzeko moduak, barne-dinamikak: 5., 6., 7., 8.

¹ Ezinbestekoa da Mikel Saenz de Buruaga eta Maider Arnaiz aintzat hartzea eta eskerrak ematea dokumentu honen itzulpena eta berrikuspenagatik. Mila esker!

eta 9. bideak.

- Hegoaldea: nola kontaktzen dugun, nola komunikatzen garen: 10. bidea.

IPARRA: zer egiten dugun, gure nortasuna, gure esparru politikoa.

1. bidea. Ikuspegi interseksionala duen erakunde feminista gisa finkatuko gara, arrazakeriaren eta zisheteropatriarkatuaren aurkako gure apustu dekolonialean sakonduz.

2. bidea. Kontsumo Kritiko Arduratsu eta Eraldatzailearen (KKA) hainbat esparrutan ikuspegi feminista txertatzeko apustua indartuko dugu: indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko lotura, finantza etikoak, elikadura burujabetza eta bidezko merkataritza, eta ehungintza sektore deslokalizatuko lan-eskubideak.

EKIALDEA. Norekin eta nortzuk egiten dugun, gure aliantzak eta partaide garen espazioak.

3. bidea. Sare feministekiko harremana indartzen eta horietan parte hartzen jarraituko dugu, arrazismoaren aurkako zein sexu eta genero aniztasuneko taldeekin aliantza berriak bilatuz.

4. bidea. Abentura berean dauden beste talde batzuekin batera eta haiek inspiratuta egingo dugu aurrera erakunde feminista interseksionala eraikitze bidean.

MENDEBALDEA. Nola egiten dugun, gure funtzionatzeko moduak, barne-dinamikak.

5. bidea. Gure lan-politika feminista indartuko dugu.

6. bidea. SETEMen, bizitza erdigunean jarriko dugu, parte garen kideen zaintza gure gain hartuko dugu, emozioak eta gatazkak kudeatuko ditugu; talde-kultura erakundearen eta norbanakoaren ardura da.

7. bidea. Espazio segurua gara, indarkeria matxistarik, LGTBI+fobikorik eta arrazistarik gabea.

8. bidea. Harreman horizontalen esparruan, botere-espazioak eta mailak aitortu, mugatu eta legitimatzen dituen erakundea gara.

9. bidea. Erakunde osoari III. Sugara Plana ezagutzeko eta haren ardura hartzeko aukera ematen dion egitura dugu, gure apustu feminista interseksionala gauzatzeko tresna gisa.

HEGOA. Nola kontaktzen dugun, nola komunikatzen garen.

10. bidea. Barne zein kanpo komunikazio feministarako bideak mantendu eta indartuko ditugu, erakunde osoari III. Sugara Planarekin erantzunkide izateko aukera emateko eta gure kanpo-identitatea KKA erakunde feminista gisa finkatzeko.

3.- IBILI NAHI DITUGUN IBILBIDEAK.

Feminismoa ez da ideologia estatiko bat, baizik eta etengabe eraikitzen eta deseraikitzen ari den pentsamendu bat. Beharrezkoa da erakunde feminista gisa birpentsatzen eta aurrera egiten jarraitzea, etengabe gure ikuspuntuak eta praktikak kolektiboki berraztertuz, interseksionalitateetatik, gaur egun III. Sugara Plan honetan oraindik jaso ez ditugun errealitateei aurre egiteko eta horiek barneratzeko. Horregatik, hamar bide ezarri ditugu, izan nahi dugun erakundea bilakatzeko horietan aurrera egin behar dela iritzita:

1. bidea. Ikuspegi interseksionala duen erakunde feminista gisa finkatuko gara, arrazakeriaren eta zisheteropatriarkatuaren aurkako gure apustu dekolonialean sakonduz.

SETEM ikuspegi interseksionala duen erakunde feminista bat da. Erakundea osatzen dugun pertsonak, geure buruak berrikusi eta birpentsatzera gonbidatzen gaitu, aniztasunetik, geure zapalkuntza eta pribilegioetatik. Feminismoek kanpotik eta barrutik gu zeharkatzen jarraitzea nahi

dugu, erakundearen barne-praktiketan aldaketak egitera bideratuko gaituen argitasun teoriko bat emanez.

Horregatik, plan honen barruan, sistema zisheropatriarkal kolonialean, kapitalistan eta arrazistan dugun posizioari buruz hausnartu nahi dugu. Gure bizi-posiziotik ditugun pribilegioekin konektatu nahi dugu, sistema honetan konplizeak garen botere-harreman posibleez jabetu eta gure posizionamendutik zein eguneroko zereginetik horiek guztiak iraultzeko ekintzak proposatu.

2. bidea. Kontsumo Kritiko Arduratsu eta Eraldatzailearen (KKAE) hainbat esparrutan ikuspegi feminista txertatzeko apustua indartuko dugu: indarkeria matxisten eta kontsumoaren arteko lotura, finantza etikoak, elikadura burujabetza eta bidezko merkataritza, eta ehungintza sektore deslokalizatuko lan eskubideak.

KKAEren potentzial eraldatzailea aitortuz, SETEMen begirada feminista txertatu izan dugu egungo sistema sozioekonomikoa iraunarazten duten indarkeria matxistak ikusarazteko; izan ere, hori da gure nortasun ezaugarria eta lan eremu nagusia. Horregatik, ezinbestekoa zaigu sistema kapitalista kolonialistaren eta zisheropatriarkatuaren arteko aliantzan sakontzen jarraitzea, aliantza horrek kontsumo eremu guztietan hartzen dituen formak eta eragiten dituen inpaktuak argitzen jarraitzeko. Era berean, eredu horrekiko alternatibak definitzen jarraitu nahi dugu, askotariko feminismoetatik pentsatuta.

3. bidea. Sare feministekiko harremana indartzen eta horietan parte hartzen jarraituko dugu, arrazismoaren aurkako zein sexu- eta genero-aniztasuneko taldeekin aliantza berriak bilatuz.

SETEMen uste dugu funtsezkoa dela sarean lan egitea beste entitate, erakunde eta taldeekin, kolektiboki eraiki ahal izateko. Gure ustez, sareko lana funtsezko tresna da eraldaketa feministako testuinguru erradikalak bultzatzeko. Argi dugu nazioartean mugimendu feminista funtsezko subjektua dela sistema hau aldatzeko. Uste horretatik abiatuta, aliantza sendo bat eraikitzen jarraitu nahi dugu, haren parte edo gertukoak diren kolektiboetara zabalduko dena. Horregatik, funtsezkoa iruditzen zaigu feminismoen proposamenez elikatzen jarraitzea, antirrazistak eta antizisheropatriarkalak direnei arreta berezia eskainiz, haien ibilbide politiko eta aktibistetatik ikasiz eta inspirazioa lortuz.

4. bidea. Abentura berean dauden beste talde batzuekin batera eta haiek inspiratuta egingo dugu aurrera erakunde feminista interseksionala eraikitzeko bidean.

Badakigu erakunde feministak eraikitzeko erronka honetan ez dagoela errezeta magikorik; baina abentura berean daudenen artean ikasteko aukera badago. Feminismoa erakundearen txoko guztietara ekartzearen aldeko apustuak jarrera, praktika, egitura eta erakunde dinamikak etengabe zalantzan jartzea dakar. Zerbait oso indartsua da hori, eta batzuetan zaila egiten da, erreferentzia edota esperientzia faltagatik, eta horrek noraezean sentiarazten gaitu. Horregatik, beste batzuekin batera bidea egiten jarraitu nahi dugu, bakoitzak esploratzen duen horretan elkarri inspiratuz, eta bizi ditugun esperientziak partekatuzetik ikasiz.

5. bidea. Gure lan-politika feminista indartuko dugu.

Azken urteotan, ekonomia sozial eta solidarioko beste erakunde batzuekin batera, Lan Politika Feminista deritzogunaren inguruan gogoeta egiten eta praktikak partekatzen aritu gara. Plan honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu kolektiboki eraikitzen jarraitzea eta SETEMen barnera eramatea bizi garen gizartearen barruan dauden dinamika zisheropatriarkalak eraldatzeko lagungarri diren ikaskuntzak, hausnarketak eta praktikak. Lan-kultura feminista sendotu nahi dugu, eta horretarako, gure ezagutzak zabaldu behar ditugu, bai eta gure lan-ituna berrikusi ere, ikuspegi feminista interseksionala txertatze aldera.

6. bidea. SETEMen, bizitza erdigunean jarriko dugu, parte garen kideen zaintza gure gain hartuko dugu, emozioak eta gatazkak kudeatuko ditugu; talde-kultura erakundearen eta norbanakoaren ardura da.

Badakigu taldearen zainketa gure proiektu politikoaren parte dela. Talde-kultura zaintzea, proiektuari

bizia ematen dioten pertsonak eta geure buruak zaintzea da, eta norberaren ardura ere bada.

Bestalde, talde-giroa lantzeak indibidualtasunak eta kolektiboa bera entzutea esan nahi du. Gure eguneroko zereginen espazioak, uneak eta tresnak sartzeko da, gure artean modu integratzen ulertzeko, pertsona eta erakunde gisa, SETEM bizigarriagoa sortu ahal izateko.

Illo horretatik, gatazken kudeaketa aztertzen jarraitu nahi dugu, aukeren eta hazkunde kolektiboaren ikuspegitik. Aurreko planetik geratzen zaigun gai bat da daukagun protokoloa berrikustea, hori baita gatazkek erregulatzeari begira gure gaitasunak garatzeko tresna nagusia. Dokumentua berrikusteari ekin nahi diogu berriro, eta egiten ditugun beste gogoeta batzuekin dokumentua handitu edo osatu nahi dugu.

7. bidea. Espazio segurua gara, indarkeria matxistatik, LGTBI+fobikorik eta arrazistatik gabea.

Sexu-jazarpeneko eta sexuan edo sexu orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoeretan prebentzioa lantzeko eta esku hartzeko GGKEen Koordinakundearen protokoloa nola txertatzen eta bereganatzen dugun birpentsatu nahi dugu. Protokolo horrekin bat egin genuen argitara atera zenean; hala ere, badakigu erakundearen barruan sozializazio eta barneratze lana egitea falta zaigula.

Gainera, gu partaide garen beste sare batek, REAS Euskadik, indarkeria matxisten aurkako protokolo bat onartu du, eta, beraz, ahalegin bat egin beharko dugu hori aztertzeko eta indarkeriarik gabeko espazio gisa gozatu nahi dugun SETEMen errealitatera gehien egokitzen zaiona martxan jartzeko.

8. bidea. Harreman horizontalen esparruan, botere-espazioak eta -mailak aitortu, mugatu eta legitimatzen dituen erakundeak gara.

Botere-harremanetan esku hartzen duten faktoreei buruz hausnartzeko elkartu ginenetik, SETEMen aldaketak izan dira, bai kontratatutako langileei dagokienez, bai boluntarioei dagokienez. Horregatik, plan honetan orain SETEMen maila eta boterea eman dezaketen elementuak aztertzen jarraitu nahi dugu. Beharrezkoa deritzogu lan hori egiteari, gure harremanak sendotzeko, parte hartzeko askotariko moduak onartzeko konpromisoa duen esparru horizontal batean.

Halaber, esparru horretan garrantzitsua iruditzen zaigu parte-hartze horizontala eta feminista sustatzen duten materialak sortzea, erakundearen barruan zein kanpoan sozializatzeko.

9. bidea. Erakunde osoari III. Sugara Plana ezagutzeko eta haren ardura hartzeko aukera ematen dion egitura dugu, gure apustu feminista intersektionala gauzatzeko tresna gisa.

Bestalde, III. Sugara Planaren kasuan ere, asmoa da erakunde osoa horretaz jabetzea, planteatzen diren aldaketekiko erantzukidetasuna egon dadin, aldaketa horiek erakundearen kulturaren eta egituraren finkatu, sustraitu eta txerta daitezten. Horretarako, genero erreferentzia den pertsona funtsezko eragile gisa izaten jarraitzea nahi dugu; bai eta *Las Maris* SETEMen barruko zein kanpoko jardueretan begirada feminista intersektionalaren transbertsalizazioa zaintzen duen taldea izaten jarraitzea ere.

Bestalde, pertsona guztien inplikazioa indartzen jarraitu nahi dugu, parte hartzeko gune zehatzak zein sozializazio jarraitu eta planifikatu bat sortuz, plan osoan lantzen dena partekatuz.

10. bidea. Barne zein kanpo komunikazio feministarako bideak mantendu eta indartuko ditugu, erakunde osoari III. Sugara Planarekin erantzunkide izateko aukera emateko eta gure kanpo-identitatea KKAEE erakunde feminista gisa finkatzeko.

Bide honen bidez, garrantzia eman nahi diogu planaren barruan egiten dugun guztiaren barne sozializazioari, talde erantzukidetasunerako beste tresna gisa.

Gure kanpo komunikazioari dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaigu planaren barruan gertatzen den guztia partekatuzko ahalegina egitea: batetik, antzeko prozesuak sustatu eta inspiratzeko; eta bestetik, eragile feministek SETEM aitor dezaten eta ekintza bateratuak egiteko zein hausnarketa kolektiboak egiteko kontuan har gaitzaten.

Hala, kolektibo feministekin eta arrazakeriaren aurkako zein sexu- eta genero-aniztasunaren aldeko

taldeekin harremanak eta aliantzak sortzen jarraitu ahal izango dugu. Halaber, horrek feminismoekin konprometitutako erakunde gisa dugun zilegitasun sentimendua indartuko du.